

► Donostian eskaini dioten zikloari hasiera emanez, Maraña mintzatu zen Koldo Mitxelena Kulturunean

► Eibartarraren jardun anitza nabarmendu eta literaturan izan duen garrantzia agerian utzi zuen

Juan San Martin, orain mende erdi hasi zen eta euskal kultura berritu duen gizona

Hasierako alfabetatze kanpainen sorreran, ikastola mugimenduaren hastapenetan, euskara batuaren auzian, euskal poesiaren berrikuntzan eta beste mila arlotan eragin izugarria izan duen gizona da Juan San

Martin. Ondorio horiek eta gehiago atera zituen Felix Maraña, atzo eibartar idazle eta ikerlariari Donostian eskaini zaion zikloa zabalduz irakurri zuen hitzaldian. Entzuleen artean, lehen eserlekuetan, han zego-

en Juan San Martin bera, alde banatara Mari Paz emaztea eta Oier seme gazteena zituela. Gaur, bost lagun igaroko dira Koldo Mitxelenako hizlarien mahaitik, eta haren izaerari eta lanari buruz arituko dira.

Joxean AGIRRE

DONOSTIA

Gabriel Arestiren "Harri eta herri" famatuari hitzaurrea egin zion. Arestik ez omen zuen ezer argitaratzen San Martini alde aurretik kontsultatu gabe, eta Arestirengan agertzen diren erreferentzia literario asko eta asko San Martinek gomen datu zizkion irakurketetatik jasoa ziren. Hura izan zen existentzialismo kutsuko poesia landu zuen lehen euskal poeta, eta bere garaiko errealismorako joera gainditu zuen. Arestirekin, Joxe Azurmendirekin eta Mikel Lasarekin batean, 60ko hamarkadan euskal poesia berritu zuen taldeko kidea da, baina Juan San Martinen egitekoa ez zen literaturara mugatu, euskal kulturaren arlo nagusietan eragile izan baitzen.


«Inguruan zituenei laguntzen zekien. Gabriel Celayak Hondarribian eman zuen hitzaldi batean esan zuen San Martinek moralki eta materialki laguntzen ziola, eta materialki esatean inork deskuidatu ez zedin, pezetan laguntzen ziola erantsi zuen eta negar egiten zuen Celayak hori aipatzean», esan zuen atzo Felix Maraña, Juan San Martini Donostian eskaini zaion zikloa zabalduz eman zuen hitzaldian.

Eragina

Euskal poesiak modernotasunera eman zuen jauzian garrantzi handia izan zuen San Martinek, baina eragina kultura osora zabalduz, 60ko hamarkadan euskal kulturak izan zuen berrikuntzaren eragile nagusietakoa dela ere esan daiteke.

«Ez zegoen euskal asterik, ez jardunaldirik Juan San Martinen laguntzarik gabe eratzen zenik. Literaturari, hizkuntzari, arteari, etnografiari eta kulturari buruzko ikerketak egin zituen», esan zuen Maraña, eta "Hoja de lunes" egunkarian argitaratu zituen artikuluen eta gidatu zituen aldizkariaren berri eman zuen. «Ez da izango garaiko euskal kulturaren San Martinek adina gutun idatzi eta jaso dituenik», jarraitu zuen eta gutunen hartzaile horien zerrendan Noberte Tauer aipatu zuen beste batzuen artean.

Euskal Herriko Unibertsitateak oraindik "honoris causa" eman ez diolako kexu agertu



Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

Juan San Martin, atzo Koldo Mitxelena Kulturunean, Mari Paz emaztea eta Oier semea ondoan dituela, hizlariari entzuten.

LEKUKOTASUNEN BIDEZ

EGINDAKO ARGAZKIA

J.A.

DONOSTIA

Gaur, Lurdes Auzmendi itzultzaileak itzulpengintza bultzatuz San Martinek egin zuen lana aztertuko du; eta Felipe Juaristi poetak, berriz, San Martinen poesia. Serafin Basauri Juanitok Eibarren zuen etxeaz mintzatuko da, Pako Iriondo Juanitoren mendizalekasunaz, eta Faustino Lopez de Foronda, giza eskubideen arloan San Martinek egin zuen lanaz.

Bihar, Jose Luis Lizundiak San Martin euskal kulturako *tototerreno* gisa aztertuko du. Antxon Narbaizak haren liburutegiaren berri emango du eta omenduak ikerketarako erakutsi zuen jakin-minaz hitz egingo du Jesus Altunak. Ostiralean, azkenik, Oier San Martin semeak hitz egingo du erretiratu baten egitekoaz, eta ondoren, Jean Haritschelhar, Iñaki Arriola (Eibarko alkatea), Miren Azkarate eta Joxe Joan Gonzalez de Txabarri mintzatuko dira omenduarekin izan zuten ezagupideaz.

Jardunaldiko hitzaldi eta txostenekin liburua argitaratuko du ondoren Koldo Mitxelenak.

zen Maraña. «Munduko edozein herrialdeetako unibertsitateetan erretore ohorozkoa egingo zutekete», esan zuen.

Xehetasunei dagokionez, Auzamendik argitaratu zuen Euskal Herriko Entziklopedian berak izenpetutako zenbat argazki ageri diren aipatu zuen. «Milaka dira berak izenpetzen dituen argazkiak», zehaztu zuen.

Kanpoko poeta handien itzultzaile izan dela esan zuen Maraña. 1989. urtean lehenengo Ararteko izendatu zutenean, haren ikerketa lanak urritu egingo zirela pentsatu zuten, baina arlo kutunetan lanean jarraitu zuela nabarmendu zuen Felix Maraña.

Makinak esportatzen zituzten enpresetan lan egin zuen. Txikitandik asko irakurri duen irakurlea izan da, autodidakta, beraz. Kirolari gisa, mendizalekasuna izan da gehien maite izan duen arloa. Eskalada

eta goi mendietako monitorea ere izan zen. Naranjo de Bulnes hiru bidetatik igoa da eta Pirinioetan bide berriak irekitakoa. Alpeetan, Picos de European eta Gredos mendikatean behin eta berriz ibilia da eta indusketa lan asko egin. Euskal Historiarreari ekarpenak egin dizkio. "Pyrenaica" eta "Munibe" aldizkarietan argitaratu dituen lanak dira zaletasun horien lekuko. Felix Maraña hitzaldia bukatu eta Jabier Aranburu, Ramiro Larrañaga eta Juan Garmendia adiskideak mintzatu ziren. Azken horrek, tolosar etnografoak, alegia, elkarrekin bizi izandako gertakari zenbait kontatu zituen.

«Orain 44 urte ezagutu genuen elkar. Nik hitzaldi bat ematera eraman nahi nuen Mitxelena Tolosara, eta Errenterriko haren etxera sartu nintzenean, han aurkitu nuen Juanito San Martin», kontatu zuen.